

EUSKARA IKASLEENDAKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA: OINARRIAK

1.- Oinarrien xedea. Oinarri hauen xedea da euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren Malerrekako herritarrei diru laguntza emateko modua arautzea.

2.- Diru laguntzaren gaiak. Diruz lagunduko dira 2018ko urriaren 1etik 2019ko irailaren 30era arte egindako ikastaroen matrikula gastuak. Diruz lagunduko dira ikastaro estentsiboak, trinkoak, barnetegiak eta *on line* egindakoak.

Ez dira diruz lagunduko joan-etorri gastuak, liburu eta material gastuak, barnetegietako egoitza gastuak eta ikastaroan edo euskaltegian ikasleak jarduera akademikoaren osagarri moduan egindako beste edozein jarduerengatiko gastuak. Eskatzaile bakoitzak eskaera bakarra egin ahalko du.

3.- Onuradunak. Diru laguntza hau hartu ahal izanen dute ondoko baldintza hauek betetzen dituztenek:

1. Gutxienez 16 urte izatea.
2. Malerrekako Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako batean erroldatua egotea.
3. Diruz lagundutako ikastaroan asistentzia maila deialdi honen 4. oinarrian azaldutako portzentajeen arabera izatea. Ez dira kontuan hartuko gaixotasunen, mediku kontsulten edo araturiko azterketetara joatearen ondorioz behar bezala justifikaturiko faltak.
4. Eskatzen den dokumentazioa ezarritako epean aurkeztea.
5. Malerrekako Mankomunitatearekiko zerga betebeharrak ordainduta izatea (Mankomunitateak ofizioz egiaztatuko du inguruabar hori, eta behar den eginbidearen bitartez jasoko).
6. Ikastaroaren aprobetxamendu egokia egiaztatzea.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira administrazio publikoren bateko langileak izanik, euskalduntze plan bereziren batean sartuak daudenak.

4.- Diru laguntzaren ezaugarriak eta zenbatekoa. Diru laguntza mota bakarra egonen da, eta ikastaroan izandako asistentzia mailaren arabera, gehienez ere ikastaroko matrikula gastu osoaren adinakoa izanen da.

- Diru laguntza matrikularen kostu osoaren adinakoa izanen da ikastaroan izandako asistentzia %85etik gorakoa denean.
- Diru laguntza matrikularen kostuaren %75 izanen da ikastaroan izandako asistentzia %70-%85 bitartekoa denean.
- Ez da diru laguntzarik jasoko ikastaroan izandako asistentzia %70etik beherakoa denean.

Gehienez ere diru laguntza hau 380 eurokoa izanen da.

Diru laguntzak banatzerakoan kontuan hartuko dira mankomunitatearen 2018ko eta 2019ko aurrekontuetan aurreikusitako diru kopuruak.

5.- Diru-laguntzak emateko prozedura: aurkeztu beharreko dokumentazioa eta epea.

Eskabideak eta gainerako dokumentazioa aurkezteko azken eguna: **2019ko urriaren 2a.**

- a. Eskaera orria behar bezala beteta eta eransten den ereduari jarraituta.
- b. Nortasun agiriaren fotokopia.
- c. Erroldatze agiria.
- d. Euskaltegiko izen-emate orria eta matrikularen ordainagiria.
- e. Euskaltegiaren agiria, asistentzia eta aprobetxamenduari buruzko datuak ematen dituenak.
- f. Aitorpena, helburu honetarako administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako diru-laguntza guztiena. Adierazi beharko da eskaerak ebazteke edo ebatzita dauden; azkeneko kasu horretan, erantsiko da kontzesioari buruzko ebazpenaren kopia.

Dokumentazioa Malerrekako Mankomunitatean (Zazpigurutze, 2, beheiti. Doneztebe) aurkeztu behar dute, edo urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein lekutan.

6.- Aurkeztutako dokumentazioan egindako okerrak zuzentzea. Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar egun emanen zaizkio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez baditu, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da. Malerrekako Mankomunitateak horretarako ebazpena egingo du.

7.- Ebazpena. Deialdi honetako diru laguntzak esleitzeko erabakia Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateko lehendakariak hartuko du, Euskara Batzordearen irizpena ikusita. Erabaki hori interesdun guztiei jakinaraziko zaie.

8.- Diru laguntzaren ordainketa. Diru laguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, haiek emateko erabakia hartu ondoren. Ordainketa banku transferentzia bidez egingen da, eskatzaileek adierazitako kontu korrante zenbakian.

9.- Ordainketa alde zuzenetik. Diru laguntzaren zatirik handiena ikastaroaren hasieran eskuratzeko aukera egonen da. Horretarako eskaera orriarekin batera (eransten den ereduari jarraituta), 5. oinarriko dokumentazio zerrendako b), c), eta d) ataletan adierazirik agiriak aurkeztu beharko dira **2018ko urriaren 11 baino lehen**. Eskaera hau egiten dutenei matrikula gastuaren %75 adinako kopurua ordainduko zaie ikastaroaren hasieran. Falta den %25 eskuratzeko (asistentzia

maila ikusirik hala dagokionean), eta diruz laguntzen den jarduera bete dela justifikatzeko, **2019ko urriaren 2a** baino lehen, 5. oinarriko dokumentazio zerrendako e) eta f) ataletan adieraziriko agiriak aurkeztu beharko dira. Agiri hauek aurkezten ez dituztenek eta ikastaroan %70eko asistentzia egiaztatzen ez dutenek hasiera batean jasotako diru-laguntza osorik itzuli beharko dute.

10.- Bateragarritasuna. Deialdi honetako diru laguntzak bateragarriak dira bertze erakunde publiko zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin, betiere gain-finantzaketarik gertatzen ez bada.

11.- Datuen babesa. Datu Pertsonalak Babesteko Arautegia beterik, eskatzaileari jakinarazi nahi zaio bere datu pertsonalak Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatearen fitxategietan jasoko direla eskatutako zerbitzuak kudeatzeko eta Mankomunitatearen berezko eginkizun legalak burutzeko. Interesdunak kontrakorik adierazten ez badu, datuak epe zehatzik gabe kontserbatuta izan daitezke.

Zerbitzua gauzatzeko beharrezkoa denean edo/eta legediak horrela agintzen duenean bere datuak Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateko sail desberdinei, Nafarroako Gobernuari, eta Mankomunitatearekin harremana duten beste erakundeei, bai publikoak bai pribatuak komunikatuak izan daitezke.

Mankomunitateak ematen duen zerbitzua edo/eta dokumentu hau onartzeak esan nahi du eskatzaileak onespena eta baimen zehatza ematen duela, adierazitako helburuen baitan, bere datuak tratatzeko eta komunikatzeko. Bere esku dago sarbide, zuzenketa, ezeztapen eta aurkaritza eskubideak erabiltzea. Era berean, emandako baimena edonoiz ezeztatu dezake, baita gai honi buruzko beste eskariren bat egin ere. Horretarako Tratamenduaren Erantzulearengana jo beharko da, helbide honetan: Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatea, Zazpigurutze, 2, behea, 31740 Doneztebe/Santesteban (Nafarroa) edo posta elektronikoko honen bitartez: mancomunidad@malerreka.infolocal.org. Eskatzaileak, eskariari emandako erabakiarekin ados ez badago edo erreklamazio bat jarri nahi badu, kontrol aginte eskudunera jo dezake, kasu honetan, Datuak Babesteko Bulegoa (www.agpd.es).

12.- Diru-laguntzen itzulketa. Diru-laguntza zati bat edo osoa itzuli beharko da ondotik azaltzen direnak gertatzen direnean:

- a) Diru-laguntza eskuratzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe.
- b) Eskatzen diren agiriak ez aurkeztea horretarako ezarritako epean.
- c) Objektu bera duten eta bateraezinak diren diru-laguntzak aldi berean jasotzea.
- d) Nahitaez onartu behar diren egiaztapenak ez onartzea edo oztopatzea.

13.- Auzibidea. Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

14.- Errekurtsoak. Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haien betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsoa, administrazio egintzaren udal organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunearan hasiko da epe hori.

**Euskara ikasleentzako diru laguntzak:
Eskaera orria**

Eskatzailearen datuak

- ✓ Izen-abizenak:
- ✓ NAN:
- ✓ Helbidea:
- ✓ Posta kodea:
- ✓ Herria:
- ✓ Telefonoa:
- ✓ E-maila:
- ✓ Kontu korrontearen zenbakia:

IBANa _____ 20 digitoak: _____

Euskara ikastaroei buruzko informazioa:

- ✓ Euskaltegia:
- ✓ Urratsa(k):
- ✓ Ikastaro mota :
 - Estentsiboa
 - Trinkoa /
 - Barnetegia
 - On line

- ✓ 2018ko urriaren 1etik 2019ko irailaren 30era bitarteko matrikula gastuak

€

- ✓ Diru laguntzaren zatirik handiena ikastaroaren hasieran jaso nahi dut
- ✓ Ez dut diru laguntza aitzintzerik nahi

Data eta sinadura

EUSKARA IKASLEENDAKO DIRU-LAGUNTZA: ZINPEKO AITORPENA

Eskatzaileak hau aitortzen du:

- Ez dagoela sartuta diru-laguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.
- Laguntza eskaera honetaz gain ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko edo pribatuk emana.
- Diru-laguntza eskatu diela beheko erakunde hauei:

ERAKUNDEA	ZENBATEKOA	EGOERA (Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta)

- Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi diru-laguntza eskaerarik eginez gero, Malerrekako Mankomunitateari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain.

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

(Data eta sinadura)